

40

URTE / AÑOS / YEARS




UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan: mugimenduak eta mugak euskal kulturan

19.Uzt - 20.Uzt

Kod. K12-21



Edizioa

2021

Jaduer mota

Uda Ikastaroa

Data

19.Uzt - 20.Uzt

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

ZUZENDARITZA

Garbiñe Iztueta Goizueta, Etxepare Euskal Institutua

Antolakuntza Batzordea

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Fundación
BBVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Azalpena

Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu Etxepare Euskal Institutuak. Gaur egun, 36 irakurletza ditu Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, eta horietan euskara eta euskal kulturako 30 irakasle ari dira lanean. Horiez gain, 9 katedra ere sortu ditu, beste horrenbeste unibertsitateetan. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizuneko prestakuntza sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo desberdinetako adituak gonbidatu ditu, aurreko urteetako bide beretik. Hortik "Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XI" izenburua.

Aurtengoan muga eta mugimendua izango ditugu hizpide eta bizi dugun garai honetan kontzeptu horien inguruko hausnarketa eta ikasketek euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duten eragina eta irakaskuntza horri egin diezaioketen ekarpena aztertuko dugu. Horretarako hizkuntzaren, musikaren, literaturaren eta oro har kulturaren esparruan mugek eta mugimenduak zentzu zabalean duten tartea izango dugu mintzagai.

Helburuak

Mugaren eta mugimenduaren kontzeptuetara hurbiltzea.

Euskal gizartean eta kulturaren eragina duten eta izan duten mugak eta mugimenduak ezagutzea.

Euskal kulturaren muga eta mugimendu kontzeptuen inguruko hausnarketa eta ikerketek egin duten ekarpena hurbiltzea.

Mugek zentzurik zabalenean euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan duten eragina eta irakaskuntza horri egin diezaioketen ekarpenak aztertzea.

Euskal kulturako mugimenduen berri ematea nazioartean euskara eta euskal kultura irakasten ari diren edo horretan jardungo duten irakasleei.

Etxepare Euskal Institutuko irakurletza sareko irakurleen jardunaren berri ematea eta esperientziak partekatzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-07-19

09:00 - 09:15

Erregistroa

09:15 - 09:25

Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Garbiñe Iztueta Goizueta Etxepare Euskal Institutua - Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendaria

09:30 - 10:30

"Pasabideak, etenak eta lotuneak: mugaren paradoxak globalizazio garaian"

Aitzpea Leizaola Egaña EHU - Irakaslea

10:30 - 11:30

"Euskara kanpoko hizkuntzalari eta ikerlarien begietan"

Oxel Uribetxebarria Lete EHU - Doktoregaia eta irakaslea

11:30 - 12:00

Atsedena

12:00 - 13:00

"Atzerriko euskara ikasle izatetik euskal literaturako ikerlari/itzultzaile izatera: mugak eta erronkak"

Nami Kaneko Irakaslea. Fukuokako Unibertsitatea - ZOOM BIDEZ

13:00 - 13:15

Sintesia

16:00 - 16:45

"Muga batetik bestera, euskal film laburretan barrena"

José M^a Muñoz López Euskadiko Filmategia - Kimuak programa

16:45 - 17:30

"Euskararen ikaskuntzatik ama hizkuntzara bidaia"

Maitena Duhalde de Serra EHU - Irakaslea

2021-07-20

09:15 - 10:15

"Konektografia eta paisaiak: euskal idazleak mugimenduan"

Paulo Kortazar Billelabeitia EHU - irakaslea

10:15 - 11:15

"Mugak eta mugimenduak euskal artean"

Ismael Manterola Ispizua EHU - Irakaslea

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

11:15 - 11:45

Atsedena

11:45 - 12:45

"Euskal raparen mugimendu eta mugei buruzko hausnarketa historiko-antropologikoa"

Eric Dicharry Lavie UPPA / Etxepare Euskal Institutua - Irakaslea

12:45 - 13:00

Sintesia

16:00 - 16:45

"Euskal emakumeak: mugak eta mugimenduak"

Paula Motrico San Emeterio Chicagoko Unibertsitatea / Etxepare Euskal Institutua -
Irakaslea

16:45 - 17:30

"Mugaz gaindiko kultur egitasmoak"

Iasone Parada Garmendia Artedrama - Ekoizlea

17:30 - 17:45

Itxiera

Garbiñe Iztueta Goizueta Etxepare Euskal Institutua - Euskara sustatzeko eta
hedatzeko zuzendaria

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

**CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES**

www.uik.eus

Zuzendariak



Garbiñe Iztueta Goizueta

Etxepare Euskal Institutua
(Donostia)

Garbiñe Iztueta Aleman Filologian eta Ingeles Filologian lizentziatua da, eta Filologia Modernoan doktorea, literatura konparatuan. 2017az geroztik Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria da Etxepare Euskal Institutuan. Aurretik Euskal Herriko Unibertsitatean egin du ibilbide luzea, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza saileko irakasle gisa (1998-2017), baita Aleman Filologiako koordinatzaile (2014-2017) eta Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde (2007-2011) moduan ere. Honako gaiak izan ditu hizpide eta aztergai bere proiektu eta argitalpenetan: Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna, Euskal Herriaren irudia alemanezko bidaiari-deskribapenetan, espazioa, emozioa eta aberria alemaniar literaturan, botere espazioak Herta Müller idazlearen prosan eta identitatea Alemaniar Batasunaren ondorengo literaturan.

Irakasleak



Eric Dicharry Lavie

Eric Dicharry (Baiona, Lapurdi, 1969ko uztailearen 7a) antropologoa, artista eta idazlea da. Antropologian doktorea (EHESS, Paris), ikertzailea, poeta, artista eta erakusketa-komisarioa da. Mintzo askotako sortzailea eta ikerlaria da. Biarritzen bizi da gaur egun. Obra mamitsua dauka lau adarretakoa : azterketak lehenik, sorkuntza poetikoaren saila gero, sorkuntza artistikoaren saila azkenean.



Maitena Duhalde de Serra



Nami Kaneko

Nami KANEKO literatur itzultzaile eta ikerlaria da. Ikasketa Hispanikoetako lizentziatura eta masterra egin zituen Tokyo University of Foreign Studies-en, eta doktorego ikasketak unibertsitate berean eta UPV/EHUko Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak programan. Gaur egun, Fukuoka University-ko irakaslea da. Itzulpen hauek eginak ditu euskaratik japonierara, besteak beste: Kirmen Uriberen Bilbao-New York-Bilbao (2012) eta Mussche (2015, Japoniako Itzulpen Onenaren Saria eta Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria), Bernardo Atxagaren Soinujolearen semea (2020, Japoniako Itzulpen Onenaren Sarian finalista) eta Iban Zalduren "Bibliografia" (2020). Ikerkuntzari dagokionez, eremu eleanitzetan eta hizkuntza gutxituetan garatzen den literatura eta itzulpenaren arteko harremana du ikergai nagusi, eta ikuspegi horretatik aztertzen du euskal literatura.

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus



Paulo Kortazar Billelabeitia

EHU-UPV



Aitzpea Leizaola Egaña

UPV/EHU



Ismael Manterola Ispizua

MHLI. UPV/EHU

(Zumaia, 1966). Arte Historian lizentziatu zen Valentziako Unibertsitatean eta doktoregoa EHU/UPVn gauzatu zuen Arte Historian. Egun EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean Artearen Historia irakasten dihardu. Egunkarian, Berrian eta Garaegunkariko Mugalari gehigarrian arte kritika idatzi du. Gure Artea 2006 (2006) eta Bilbea eta Hari askeak: euskal artearen bi bildumen arteko elkarriketa (2014) izeneko erakusketak antolatu ditu. Bere agitalpenen artean daude, besteak beste, 2012an UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik kaleratutako Raemaekerseren Marrazkiak: Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran liburua eta Autonomía e ideología (2016) liburuko "Compromiso o especificidad del medio. Arte en el País Vasco en las últimas décadas del siglo XX" atala.

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus



Paula Motrico San Emeterio



José Mª Muñoz López



Iasone Parada Garmendia

(Orereta, 1986) Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Hiru urtez EiTBko errealizazio departamentuan lan egin ostean, Cubako Escuela Internacional de Cine y TeleVisión-en (EICTV) arte zuzendaritzako goi mailako tailerrean titulaturia. 2011tik ArteDrama Arte Eszenikoan Plataformako kidea da eta bere lan esparru berezitua ekoizpena: proiektuen eramailetza, administrazioa eta kudeaketa. Antzezlanak sortu eta hedatzeaz gainera, jaialdi eta formakutza tailerren antolaketan aritzen da; beti ere euskaraz eta Euskal Herriko lurralde guztietan.



Oxel Uribetxebarria Lete

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE | 2021-05-03 ARTE | 2021-07-19 ARTE |
|--|------------------------|------------------------|
| GONBIDATUAK | 0 EUR | - |
| OROKORRA | - | 77,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA | - | 65,00 EUR |
| MATRIKULA EXENTZIOA | - | 54,00 EUR |
| ELKAR txarteldunak | - | 65,00 EUR |
| Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide | - | 65,00 EUR |
| DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA | - | 65,00 EUR |

| ONLINE ZUZENEAN | 2021-04-05 ARTE | 2021-05-03 ARTE | 2021-07-19 ARTE |
|--|------------------------|------------------------|------------------------|
| GONBIDATUAK | 0 EUR | - | - |
| OROKORRA | - | - | 77,00 EUR |
| MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA | - | - | 65,00 EUR |
| MATRIKULA EXENTZIOA | - | - | 54,00 EUR |
| ELKAR txarteldunak | - | - | 65,00 EUR |
| Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide | - | - | 65,00 EUR |
| DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA | - | - | 65,00 EUR |

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa